

**GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, NORGEHIAGOKA BIDEZKO ARAUBIDEAREN MENDEKOA. 2011 URTEA**

---

### ***1. Xedea eta helburua***

Deialdi honen xedea garapenerako lankidetzako proiektuak 2011an kofinantzatzea da, garapen bidean dauden herrialdeetako populazioaren oinarritzko beharrak asetzeko (GBH). Horretarako ekitaldi horretako kontu-sailean **48.200,00 euro** inguru daude.

Proiektu hauek, bere proposamenean, kudeaketan eta gauzatzean, ondoko arloetan garapena sustatzeko bideratuko dira, batez ere udal mailan: hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, giza eskubideen defentsan, bazterturiko pertsonen sustatzean, landa edo hiri komunitateak onuradun izanen dituzten eta komunitateen beraien eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa eskatzen duten azpiegiturak garatzean.

### ***2. Herrialde onuradunak***

OCDEren Garapenari Laguntzeko Batzordearen indarra duen onuradunen zerrendan dauden herrialdeak dira laguntza jasotzen ahal dutenak.

### ***3. Entitate eta proiektu onuradunak. Betekizunak***

Deialdi honetan parte hartzen ahalko dute arau hauetan eta hurrengo puntuan zehazturiko betekizunak biltzen dituzten GGKEk eta haien proiektuek.

Deialdi honen xede den diru-laguntzaren onuradunak izateko, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Legez eraturako pertsona juridikoak izatea, irabazi asmorik gabekoak. Eskerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Nafarroako Gobernu Elkartearen Erregistroan edo Garapenerako Lankidetzarako Espainiako Agentziako Garapenerako Gobernu kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribaturik egon beharko dute.
- b) Egoitza edo ordezkari iraukorra Nafarroako Foru Komunitatean izatea.
- c) Elkartearen helburu sozialak betetzen direla bermatzeko egitura, eskarmentu eta antolakuntza aski izatea.
- d) Proiektua egin behar den herrialdean tokian tokiko bazkide edo kontraparte bat izatea, proiektua gauzatu beharko duena.
- e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13.2 artikuluan aipaturako egoeraren batean dauden entitateak ezin izanen dira deialdi honetako xede diren diru-laguntzen onuradun izan.

Tokian tokiko bazkideen betekizunak

Herrialde onuradunaren legeriarekin bat pertsona juridikoak izanen diren tokian tokiko bazkide edo kontraparteek ondoko betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Hiru urteko antzintasuna izatea.

b) Proiektua gauzatzeko egitura eta antolakuntza aski izatea.

Proiektuen betekizunak:

a) Deialdiaren helburu eta xedeekin bat etortzea.

b) Finantzaketaren %20 gutxienez berezko funtsetatik, beste administrazio publikoetatik edo beste entitateetatik ateratzea.

c) Emandako diru-laguntzen diru-kopuruak, laguntza hau bakarrik hartuta edo jatorri publiko edo pribatua duten beste diru-laguntza edo laguntzekin batuta, ez du, inolaz ere, gaindituko gauzatu beharreko proiektuaren kostua.

d) Gehienez ere urte bateko epean gauzatuak egotea.

#### ***4. Eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa***

1.- GGKEk edo elkarteek proiektuarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a) Entitate eskatzaileari dagokion dokumentazioa:

-Estatutuak

- Nafarroan erakundeak eginiko jardueren memoria, aurreko urteari dagokiona, kontabilitatearen egoera eta finantziario iturriak.

- Nafarroako Gobernuo Elkartearen Erregistroan edo Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren GGKEen Erregistroan egindako inskripzioaren ziurtagiria. Azken kasuan Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ordezkariak ireki duela espresuki adierazita.

- 2008 eta 2009. urteetako kontuen kopia.

- Ogasun eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, haiekiko betebeharrak eguneraturik dituztela adierazita.

- Proiektuaren kostuaren eta eskaturiko diru-laguntzaren arteko aldea, zuzenean edo hirugarrenen finantziarioaren bitartez, emateko konpromisoa agertzen duen adierazpena.

b) Tokian tokiko bazkide edo kontrapartearen nortasun juridikoa frogatzen duen dokumentazioa:

1. Estatutuak.

2. Legezko eratzaren akreditazioa, proiektuaren onura hartzen duen herrialdeko berezko legeei jarraikiz.

3. Legezko helbide osoa.

4. Legezko ordezkariaren kredentzialak.

c) Proiektuaren memoria, inprimaki ofizialean (eranskina) eta formatu digitalean.

Memoriarekin batera proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren material, ekipamendu, hornidura, eraikuntza, lur etabarren kostuak justifikatzen dituzten agiri ekonomikoak (proforma fakturak, aurrekontu profesionalak, lurren gaineko peritatzeak, etab.) aurkezten ahalko dira.

d) Kokapen zehatzeko mapak (herrialdea, erregioa, departamentua, probintzia eta udalerrria).

e) Proiektua zuzen ulertzeko, bere borondatez, beharrezkotzat jotzen diren agiri grafiko, tekniko, ekonomiko guztiak eta bestelakoak.

Diru-laguntza bi edo proiektu gehiagorako eskatzen bada, a) ataleko dokumentazioa eskaeretako batean bakarrik aurkeztuko da.

2.- 1. puntuan eskaturiko agiriak ez badira deialdian aipaturiko epean aurkezten, interesatuari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo ezinbestekoak diren agiriak ekartzeko eta aditzera emanen zaio horrela egin ezean bere eskaera ez dela aintzat hartuko.

### **5. Eskaerak aurkezteko tokia eta epeak**

Proiektuak aurkezteko epea 30 egunekoa izanen da deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta.

Proiektuak Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean (Erreniega parkea, z/g) edo posta ziurtatuaren bitartez aurkeztuko dira.

### **6. Balorazioa eta hautapena**

Ahalik eta proiektu kopururik handiena lortze aldera, Zizur Nagusiko Udalak eman beharreko finantziazioaren mugak ezin izanen du gainditu aurrekontuko kontu-sailaren %25.

Proiektu bakoitzari esleituriko kopuru ekonomikoa hark lortutako puntuen proportzionala izanen da. GGKE edo Elkarteko proiektu bakarra lagunduko da diruz.

A) Herritarren Zerbitzuetako Alorreko teknikariek aurkeztutako proiektuak baloratu eta hautatuko dituzte. Hauek Herritarren Zerbitzuetako Batzorderako proposamena eginen dute, ondoren Osoko Bilkurak onetsi dezan. Horretarako ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, esleitzen zaien haztapenarekin. Bakoitza zerotik ehunera bitarte puntuatuko da.

Deialdi honetako eskaeren balorazioa bi fasetan eginen da. Lehendabiziko fasean ondoko irizpide hauek erabiliko dira:

- ***Emandako informazioaz eta proiektuaren kalitate teknikoaz:*** **43 puntu**
- Proiektua kokaturik dagoen inguruari buruzko informazioa (herrialdekoa zein jardun-eremuaz) (5 puntu arte)
- Eskaturiko proiektua inskribaturik dagoen sektorearen egoerari buruzko informazioa (testuingurua, baliabideak, azpiegiturak) (5 puntu arte)
- Ekintzaren justifikazio, aurreikusitako helburu eta proposaturiko jardueren arteko koherentzia (16 puntu arte)
- Diruz lagundutako ekintza burututa, proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta iraunkortasuna (11 puntu arte)
- Proiektuak alderdian egindako bestelako garapen-ekintzekin duen osagarritasuna (6 puntu arte)
  
- ***Eragileen gaitasunaz eta haien harremanen kalitateaz:*** **22 puntu**
- Tokian tokiko kontrapartearen eskarmentua eta gaitasuna, baita biztanleria onuradunarekin eta garapenerako lankidetzarako beste entitateekin edo toki erakundeekin dituen loturak ere (5 puntu arte)
- Gizarte erakundeen parte hartzea sustatzea tokian tokiko mailetan, beste erakunde edota instituzioekin batera (garapen kontseiluak, mahai sektorialak, etab) (2 puntu arte)
- Pertsona onuradunen parte hartzea proiektuaren proposamenean, gauzatzean eta kudeaketan (4 puntu arte)
- Proiektuak xede dituen herritarrak ordezkatzan dituen tokiko instituzio baten nolabaiteko parte hartzea edo bermea (2 puntu arte)
- GGKE eskatzailearen eskarmentua eta jarraipenerako ahalmena. GGKE eskatzaile eta tokian tokiko bazkidearen arteko harremana (5 puntu arte)
- Entitate eskatzailearen oinarri soziala eta bere parte hartzea (4 puntu arte)

- **Proiektuaren gizarte helburuez eta edukiez:** **21 puntu**
  - Proiektuari genero ikuspegia sartzea eta emakumeen bizi baldintzak hobetzea eta haien eskubide eta aukeren alde egitea. (3 puntu arte)
  - Giza eskubideen sustapena eta defentsa. (3 puntu arte)
  - Lanbide heziketa, batez ere sektore behartsu eta baztertuenak. (3 puntu arte)
  - Oinarrizko antolakuntza eta parte-hartze edo antolakuntza eta parte-hartze komunitarioaren sustapena. (3 puntu arte)
  - Proiektuak herrialdeko politika edota zerbitzu publikoetan izanen duen eragina. (3 puntu arte)
  - Proiektuaren ingurumeneko eraginak sartzea (bidezko bada). (3 puntu arte)
  - Komunitate onuradunen kultur nortasunarekiko errespetua (bidezko bada). (3 puntu arte)
- **Aurrekontuez:** **7 puntu**
  - Gastuaren koherentzia eta eraginkortasuna (3 puntu arte)
  - Egokitzapena planteatutako jardueretara (4 puntu arte)
- **Proiektuarekiko tokian tokiko identifikazioaz eta inplikazioaz:** **4 puntu**
  - Zizur Nagusiko Udalaren eta proiektuaren gauzatzean inplikaturiko tokian tokiko talde baten (bertako kontraparte, onuradunak, etab.) artean dauden edo sustatu nahi diren elkartzunezko harremanak, GGKE eskatzailearen eta bertako kontrapartearen arteko harremana gainditu nahi duena.
- **Lankidetzaren deszentralizatuaren kohesioaz:** **3 puntu**
  - Beste udalek edo Lankidetzaren Deszentralizatuaren instituzioek aurkeztutako proiektuari azken bi urtetan emandako sostengua.

Proiektuek aintzat hartuak izateko gutxienez ere 60 puntu lortu beharko dituzte, salbu eta aldeztu aurretik finantzaturiko proiektuek, hauek gutxienez 40 puntu eskuratu beharko baitituzte.

**B)** Azkenik, hautaturiko proiektuei, hala behar denean, ondoko irizpideak kontuan hartzetik etorritako kopuruak gehituko zaizkie:

1. *Edateko uraren hornidura.*
  - Hornidura instalazioa ez zegoen tokian: 5 puntu.
  - Zegoen hornidura eremu berri batera zabaltzea: 2,5 puntu.
2. *Oinarrizko osasun laguntza.*
  - Ez zeuden tokietan zentro berriak eraiki eta hornitzea: 5 puntu.
  - Zeuden zentroak hobetu edo handitzea: 2,5 puntu.
3. *Oinarrizko hezkuntza.*
  - Ez zeuden tokietan zentroak eraikitzea: 5 puntu.
  - Zeuden zentroak hobetu edo handitzea: 2,5 puntu.
4. *Tokian tokiko hautetsiak kudeaketa publikoari buruzko gaietan prestatzea:* 5 puntu.
5. *Garapen parte-hartzailea sustatzeko ekintzak:* 5 puntu

## **7. Diru-laguntzaren jakinarazpena eta ordainketa**

Lehiaketaren ebazpena banan-banan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Zizur Nagusiko Udalaren web orriaren bitartez jakinaraziko zaie interesdunei.

Diru-laguntzaren ordainketa hura Zizur Nagusiko Udalaren Osoko Bilkurak onetsitakoan egingen da.

## **8. Justifikazioa**

GGKEk edo Elkaratek azkeneko txosten narratzaile bat aurkeztu beharko dute deialdi honetako eranskinean dagoen ereduari jarraikiz.

1. 2011ko abenduaren 31 baino lehen entitate onuradunak proiektuaren gauzatzeari buruzko txosten tekniko eta ekonomiko bat aurkeztuko du, inprimaki ofizialean eta euskarri informatikoan.

2. Azkeneko txostenak kontu justifikatiboaren itxura izanen du. Osagai hauek bilduko ditu:

a) Kontuan ageri diren datu guztiak egiazkoak direla dioen erantzukizuneko aitortpena, entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatua.

b) Programaren gauzatze mailari buruzko txosten teknikoa, eredu ofizialaren arabera, gutxienez hauek bilduko dituena: lorturiko helburu eta emaitzen zehaztapena eta eginiko jarduerak.

c) Proiektuko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

d) Gastu guztien zerrendak, kontu-sailen eta finantzazio iturriaren arabera sailkatuak. Gastu bakoitzean honako hauek agertuko dira: zerrendako agiri zenbakia, frogagiriaren zenbakia, egin zeneko eguna, igorlearen izena eta helbidea eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa, kontzeptua, frogagirian agertzen den testua (luzea izanez gero laburtzen ahalko dena), diru kopurua ordainketa egin den monetan eta zenbatekoa eurotan. Zerrendarekin batera aurrekontuaren exekututze mailari buruzko laburpen zehatza aurkeztuko da.

e) Aplikaturako truke tasak frogatzen dituzten agiriak.

f) Tokian tokiko bazkidearen legezko ordezkariak sinaturiko agiria, jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua, herrialde onuraduneari diru-laguntza jaso dutela ziurtatzen duena.

g) Beste edozein dokumentazio grafiko edo idatzi, borondatez aurkeztu nahi dena, finantzaturiko proiektuaren gauzatzea edo martxa ona bermatuko duena.

3. Gastuen zerrendak euren frogagiriekin batera aurkeztuko dira, kontrolerako organo eskudunak egiazta ditzan. Espainian sortutako gastuen kasuan, frogagiriak jatorrizko agiriak izanen dira. Beste kasuetan fotokopiak izanen dira, tokian tokiko bazkide edo kontraparteak behar bezala egiaztatuz. Frogagiriak gaztelaniaz edo euskaraz idatzirik ez daudenean, gaztelaniara itzuli beharko dira.

Orobat, proiektua gauzatzen denetik bi urte iraganda, haren bilakaera eta egoerari buruzko memoria aurkeztu ahalko da. Memoria hori kontuan hartuko da Zizur Nagusiko Udalaren deialdira aurkeztzen diren proiektu berriak baloratzeko orduan, zehazki, "Proiektuaren Egileak" atalean, balorazio irizpideak jasotzen dituen hartan (deialdi honetan 6.A puntuan).

Beste edozein dokumentazio grafiko edo idatzi, borondatez aurkeztu nahi dena, proiektuaren gauzatze zuzena bermatuko duena.

## **9. Eginbeharrak**

Proiektu baterako diru-laguntza bat jasotzen duten entitateek honako eginbeharrak izanen dituzte:

a) Proiektua diru-laguntza ematean ezarritako baldintzetan gauzatzea. Proiektua gauzatzen hasiko da diru-laguntza osoa edo, hala denean, lehen zatia jasotzen denetik hiru hilabeteko epean, gehienez ere, salbu eta, aparteko edo ezinbesteko gorabehera justifikatuek ezinezko bihurtzen dutenean. Kasu hauetan Zizur Nagusiko Udalak baimena eman beharko du.

b) Jasotako kopuruak itzultzea proiektua gauzatzea ezinezko denean edo diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete ezin direnean, edo, hala denean, justifikatu ez den proiektuaren zatiari

dagokion kopurua itzultzea; hori guztia diru-laguntza ordaindu denetik kontaturik berandutze-interesaren galdatzearekin.

c) Aipatu diren azkeneko txostenak aurkeztea.

d) Zizur Nagusiko Udala baimendu eta harekin elkarlanean aritzea proiektuaren zabaltzean, Nafarroako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzea helburu.

e) Proiektuaren publizitate eta hedatze guztietan diru-laguntzaren jatorria aditzera ematea. Hedatze lana idatzia edo grafikoa baldin bada, Zizur Nagusiko Udalaren logotipoa erabili beharko da, diruz lagundutako entitatearena adinako tamainan eta ikuspen baldintza berberetan. Eta tokian tokiko kontraparte edo bazkideari emandako diru-laguntzaren jatorria espresuki jakinaraztea.

f) Zizur Nagusiko Udalari diru-laguntza emateko kontuan hartutako gorabehera, betekizun eta baldintzetan sortzen diren aldaketen berri ematea eta baimena eskatzea. Orobat, beranduago helburu bererako edozein erakunde edo instituzio publikok zein pribatuk emandako diru-laguntzen zenbatekoaren berri ematea.

g) Zizur Nagusian egiteko jarduerak diseinatzea, Udalaren ahalik eta alor kopuru handien (Hezkuntza, Emakumea, Gazteria, etab.) eta populazioa oro har inplikaturik dituztenak, herri, sexu eta taldeen arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko informazioa, bai eta hauek pertsonen bizimoduan eragiten dituzten ondorio larriei buruzko informazioa errazten duten sentsibilizazio lanen edo jardueren bitartez, Zizur Nagusiko populazioaren elkartasuna eta parte-hartzea bultzatzeko, komunitatearen jarrera eta jokabideetan aldaketa bat sustatze aldera.

## ***10. Diruz laguntzen ahal diren gastuak***

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuak kontu-sailen talde hauetakoak izan daitezke:

a) Zuzeneko gastuak:

a.1) Lurrak eta higiezinaren erosketak edo alokairuak.

a.2) Ondasun higiezinaren eraikuntzak edo zaharberritzeak, laneskua, obraren zuzendaritza, obra lizentzia eta eraikuntzako tasak eta materialak barne.

a.3) Ekipamendu materialak eta hornidurak, eta ekipoen garraioak sortutako gastuak; orobat, programa gauzatzeko beharrezko materialak eta hornidurak.

a.4) Langileen gastuak, esku-hartzeari atxikiriko langileen entitatearen karguko lansariak eta gizarte aseguruak biltzen ahalko dituztenak. Bi kategoria bereiziko dira:

- Tokian tokiko langileak, diru-laguntzaren xede den jarduna egiten den herrialdean zerbitzuak ematen dituztenak eta bertako lan arloko legeen mende daudenak. Haien eginkizunak eta lanak zuzenean jardunari lotuak dira.

- Langile erbesteratuak. Entitate onuraduneko langileak dira, legeria espainiarraren mende daudenak. Jarduna gauzatzen den herrialdean ematen dituzte bere zerbitzuak eta haien eginkizunak eta lanak zuzenean jardunari lotuak dira. Kontratu bidezko harremana egon behar du.

a.5) Bidaiak, ostatu-hartzeak eta dietak. Langileen eta populazio onuradunaren mugikortasunari lotutako gastuak dira, jarduna egiteko beharrezkoak, eta bertan esku-hartzearen formulazioan identifikaturik egon eta hari loturik diren ibilgailuetako erregaiak, aseguruak eta mantentzea sartzen dira.

a.6) Funtzionamendua. Jardun alderdiko ohiko gastuak dira (argindarra, ura, komunikazioak eta mantentze lanak, besteak beste); diruz lagundutako diru-kopuru osoaren %3 bitarte, gehienez ere

a.8) Identifikazioa eta ebaluazioa; Identifikaziotik zuzenean etorritakoak diruz laguntzen ahalko dira. Kasu honetan deialdi hau argitaratu baino lehenagoko sei hilabeteetan eginiko gastuak aplikatzen ahalko dira. Halaber, ebaluazioren ondoriozko gastuak laguntzen ahalko dira diruz.

b) Zeharkako gastuak

Proiektuaren zeharkako gastuengatik laguntzaren %10eko edo hortik beherako zenbatekoa aplikatzen ahalko zaio diru-laguntzari. Gastu hauek entitate eskatzaileak Nafarroan duen ohiko funtzionamenduaren gastu administratiboak dira.

Gastu hauen justifikazioa 8. puntuan (Justifikazioa) xedatutakoari jarraikiz egingen da, salbu eta justifikazio zaila duten gastuen kasuan. Horrelakoetan diru-laguntzaren entitate onuradunaren legezko ordezkariak egingen duen ziurtagiri bidez justifikatuko dira. Ziurtagirian zenbatekoa, gastu motaren erreferentzia, diruz lagundutako proiektuarekin duen lotura agertuko dira, bai eta arau orokorreari jarraikiz justifikazioa ez egin izanaren arrazoia ere. Ziurtagiri honen bitartez justifikaturiko kopuruak ezin izanen du gaingitu zeharkako kostuen %5 edo diru-laguntzaren %0,5.

2. Gastu finantzarioak, notarioenak eta erregistrokoak diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean loturik badaude eta hura modu egokian prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak badira.

3. Zizur Nagusiko Udalaren diru-laguntzak sortzen dituen etekin finantzarioak diru-laguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio eta diruz lagundutako jarduerari aplikatuko zaizkio.

11. Ez-betetzeak

1. Diru-laguntzaren onuradunek jasotako dirua itzuli beharko dute, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru legeko 35. artikuluan aipatzen diren kasuetan eta ezarritako baldintzetan.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako gorabehera, betebehara eta baldintzen edozein aldaketa aurreko arauan aurreikusitako baimen administratiborik gabe egitea ez-betetzat hartuko da.

3. Litezkeen ez-betetzeak mailakatzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- Proiektuaren arlo teknikoari eta aurrekontuei buruzko gauzatze maila.

- Aldez aurreko baimen administratiborik gabe egindako aldaketa kopurua eta haien munta.

12. Errekurtsoak

Deialdi honen, haren arauen eta haiek betetzeko ematen diren ebazpen administratiboen aurka ondoko errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze-errekurtsoa, ekintza administratiboa egin duen udal organo berari zuzendua, errekurritzen den ekintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean

- Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, errekurritzen den ekintza jakinarazi edo argitaratu ondoko hilabeteko epean.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua bi hilabeteko epean. Epea errekurritzen den ekintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatzen hasiko da.

Zizur Nagusia, 2011eko Apirila

---